



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 23a

85. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Lurralde Kohesiorako Departamenturako. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknika gauzatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen eta administrazioeko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzeari. Proposamena erretiratzea (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretiradakion. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2109/2012 Ebazpena bertan behera utz dezan eta langileen ordezkariekin ordezkari ebazpen bat negoziatu dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da tokiko eskolatzeko batzordeen osatzea, antolaketa eta eginkizunak alda ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarritzko Laguntzari buruzko Ekintza Plan bat gara dezan. Osasun Batzordeak onetsia (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da al bait lasterren taxutu ditzan Modou Khadim Ribaforadara lehenbailehen itzultzeko behar diren prozedurak. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak ezetsi du (11. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Apustu-etxeen Nafar Araubidea prestatzeko Ponentziaren txostena. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Lurralde Kohesiorako Departamenturako.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko ekainaren 17an egindako Osoko Bilkuran, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Legea, 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Lurralde Kohesiorako Departamenturako**

### HITZAURREA

Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusian ikusi da jarduketa batzuk finantzatu behar direla Eloko eta Baztango udaletan, eta ez dagoela horretarako krediturik.

Lehenik, Baztango udalerrriaren ipar-mendebaldean dauden Aritzakun eta Urritzate auzoetan, non populazioa sakabanatutako baserrietan bizi den, haraneko hirigune nagusietatik aparte, agerikoa da komunikazio bideak ez direla egokiak, bi auzoak lotzen dituen bidea nagusiki zabor-legarrezkoa baita. Horri gehitu behar zaizkio baserrietara doazen adarrak, horiek ere zabor-legarrezkoak. Gaur egun Aritzakunen eta Urritzaten hogeita bi lagun bizi dira, adin desberdinetakoak eta, beraz, behar desberdinak sortzen dira bertan. Komunikazio bidez azaldutako egoerak, ordea, zailtzen du zerbitzu batzuk baliatzeko aukera, besteak beste oinarritzko zerbitzu publikoak. Sarbide nagusia traba bat da, eragin handia du bertakoen eguneroko bizimoduan eta ez du batere laguntzen jendea zona horretan bizitzen gelditu dadin. Inguru horietan daude Urritzate-Aritzakun-Gorramendiko KBEak eta Irubelakaskoa eta Itxusi

natura-erreserbak. Aipatutako natura-eremu horien kudeaketaren zati bat artzaintzan eta gizakien ezinbesteko presentzian oinarritzen da, inguruaren erabilera jasangarria eginez.

Beraz, behar-beharrezkoa da Aritzakun eta Urritzateko komunikazio bide nagusian jarduketaren bat egitea.

Bigarrenik, NA-2420 errepidearen eta Eloko hirigunearen arteko bidegurutzearen trazadura zehaztugabea denez, ibilgailuen trafikoa sortzen da, sartu eta ateratzekoa, bide bazter berean T itxurako bi bidegurutzetan, eta horrek mugimendu desberdinak elkar lotzen ditu, zalantzak sortuz eta sarbide horretan istripuetarako arriskua handituz. Bi bidegurutze horiek, gainera, loturik daude barrutik NA-2420 errepidearekiko paraleloa den beste adar batekin, eta horrek ere areagotzen ditu mugimenduen arazoak.

Proiektuko konponbideak 50 cm murrizten du errepidearen zeharkako sekzioa eta, beraz, Eloko egungo zeharbidearen zabalerako trantsizioa beharko da; kontuan hartu da A-21 autobidea ireki zenetik asko jaitsi dela bertatik pasatzen den trafikoa. Horrekin batera, hirigune historikoaren beste aldean gero eta gehiago dira etxebizitzetarako hirigintza jarduerak, eta beste arrazoi bat da ukitutako zeharbide tarteari hiri izaera handiagoa emateko, ahalik eta segurtasun handienarekin egin daitezen bi aldeen arteko mugimenduak, motordun ibilgailuenak ez direnak bereziki.

Proiektu hau egiteko ezinbestekoa da Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia eta Toki Administrazioako eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusia koordinatuta aritzea, jarduketaren ukipen eremuetan biek dituztelako esku-menak, bideei eta tokiko gaiei dagozkienak, hurrenez hurren.

Toki Administrazioiko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusian ez dago jarduketa horiek gauzatzeko finantzaketarik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa. Bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditu finantzatzen ahal dela edozein

gastu programatan erabilgarri dagoen kredituarekin.

Era berean, foru lege honek, partida izendunak sortuz, udal horiei laguntzak zuzenean emateko gaitzen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

**1. artikulua.** Aparteko kreditu bat ematea.

2021eko ekitaldian 934.015 euroko kreditu bat ematen da, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 261634 Eloko zeharbidea	434.015 euro
210001 21300 7609 261635 Baztango bideak	500.000 euro

**2. artikulua.** Aparteko kredituaren finantzaketa.

Aparteko kreditu honen 934.015 euroko kopurua indarrean dagoen gastu aurrekontuko 220003 22200 2090 453202 partidan, "A-21 Pirinioetako

Autobiaren kanona" izenekoan, dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko ekainaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko**

#### HITZAURREA

Nafarroari esleitutako REACT UE funtsek berekin ekarri dute 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER eta EGFko programa operatiboak berriz programatzea.

2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboa berriz programatzeko erabakia aipatutako programaren jarraipen batzordeak hartu zuen maiatzaren 10ean.

Gainera, Nafarroako Gobernuak unitate batzuek adierazi dute baliabide batzuk handitu behar direla, hala langileenak nola gastu arruntekoa eta inbertsioetakoa, REACT UE funtsek berekin dakarten gastua zuzen gauzatu nahi bada.

Birprogramazio honek berekin dakartzan proiektuak eta aholkularitza teknikorako baliabide gehigarrien hornikuntza gauzatzen hasteko, komenigarria da 2021eko aurrekontuan kreditu-gehigarri bat onestea.

Jarduketa horiek gauzatzeko eskumena duten zuzendaritza nagusietan ez dago jarduketa horiek egiteko finantzaketarik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua 1. puntuak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu-gehigarri bat ematekoa.

Artikulu horren 2. puntuak ezartzen du, halaber, kreditu-gehigarri hori finantzatzeko dela diruzaintzan gastu orokorretarako dagoen gerakizun kargura, hura positiboa denean.

REACT UE proiektuen jarduketak EGEF-FEDER eta EGF funtsek kofinantzatuko dituzte % 100ean, kofinantzaketa hori gauzatzeko da gas-tua egin eta ziurtatu ondoren.

#### **1. artikulua.** Kreditu-gehigarria ematea.

2.794.504 euroko kreditu-gehigarria ematen da, 2021eko ekitaldian Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko.

Kreditu-gehigarri hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da eta zenbateko hauek izanen ditu:

PARTIDAREN KODEAK	PARTIDAREN IZENA	ZENBATEKOA
810003 81430 2276 146105	REACT NAEX Digital. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	104.544,00
810007 81200 7400 458104	REACT. CEINi transferentzia. Lekarozko mintegia. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	100.000,00
810007 81200 6094 458104	REACT NASUVINSari enkargua Indusland. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	100.000,00
810007 81200 2276 458102	REACT Azpiegitura industrialak planifikatzeko lanak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	450.000,00
330000 33100 6020 921100	(E) Artziko jauregiaren eta Nagoreko urtegiaren inguruak egokitzeko lanak berraktibatzeke plana	170.000,00
410001 41800 6020 325111	REACT Irisgarritasun proiektua zenbait ikastetxetan. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	50.000,00
410001 41800 6020 325110	REACT Aireztapen automatikorako proiektua 5 ikastetxetan. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	65.000,00
740001 74100 6092 452103	REACT Uholdeen aurkako defentsak Faltzesen. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	70.000,00
G20001 G2100 7819 467307	REACT. Automozioa eta mekatronika: NAVEAC Drive-LABerako inbertsioa. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	888.750,00
G20001 G2100 4819 467311	REACT Energia berriztagarriak: laborategia eta bioerregai aurreratuaren garapena. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	165.000,00
G20001 G2100 7819 467306	REACT Energia berriztagarriak: laborategirako eta bioerregai aurreratuaren garapenerako inbertsioa. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	505.000,00
810003 81410 2020 146100	REACT Bulegoen alokairua. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	5.000,00
810003 81410 2020 146102	REACT Bulegoen alokairua. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	2.500,00
810003 81410 6060 145100	REACT Ekipo informatikoak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	8.666,67
810003 81410 6060 145102	REACT Ekipo informatikoak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	4.333,33
810003 81410 6050 145100	REACT Eraikinetarako altzariak eta ekipamendua, eta obrak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	20.000,00
810003 81410 6050 145102	REACT Eraikinetarako altzariak eta ekipamendua, eta obrak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	10.000,00
810003 81410 1220 146100	REACT Tarteko erakunderako aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20 EGF programa operatiboa 14-20	37.190,00
110001 11400 1220 931200	REACT Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	16.370,00
113001 12200 1220 931400	REACT Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	22.150,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.794.504,00</b>

**2. artikulua.** Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

2.794.504 euroko kreditu-gehigarri hau finantzatuko da 2021eko diru-sarreraren aurrekontuko "Gastu orokorretako diruzaintza-gerakina" izeneko 113002 12100 8700 000002 partidaren kargura.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen eta administrazioiko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzea.**

*PROPOSAMENA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko foru lege proposamena erretiratu izanaz. Foru lege proposamenaren bidez ezartzen zen Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen

eta administrazioiko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzea, eta 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PRO-00009).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretiradakion.**

*HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2021eko ekainaren 18an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretiradakion”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretiradakion”.

Iruñean, 2021eko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko ekainaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Helduen Hezkuntzarako plan

estrategiko bat landu eta ezar dezan, oinarri hartuta bizitza osoan garatzen den etengabeko ikaskuntza, etengabeko prestakuntza hezkuntza formal eta ez-formaletako testuinguruetan, lan merkatuaren beharrianak, gaitasunak hobetzeko helduentzako ibilbideak sortzea, garapen pertsonal eta soziala, emaitzen monitorizazio sistematikoa eta ELGAK eta Europako Kontseiluak emandako gainerako gomendioak”.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2109/2012 Ebazpena bertan behera utz dezan eta langileen ordezkariekin ordezko ebazpen bat negoziatzen.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko ekainaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2109/2012 Ebazpena bertan behera utz dezan eta langileen ordezkariekin ordezko ebazpen bat negoziatzen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Indargabetu dezan 2109/2012 Ebazpena, eta ordutegia arautzeko horren ordezko beste ebazpen bat negoziatzen langileen ordezkariekin, kontuan hartuko dituen ordutegia, eskola-egutegia, zeharkako arreta eta hezkuntza-laguntzako langile espezialisten prestakuntza.

2. Egiturazko postuak plantillako lanpostu huts bihurtzen, eta berehala ipin daitezkeen lan publikoaren eskaintzan, behar adinako kopuruan, postu gehieneko kolektiboa funtzionario-lanpostuetan jartzeko eta aldi baterako lanaren tasak ez dezan % 8 gainditu”.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da tokiko eskolatze batzordeen osatze, antolaketa eta eginkizunak aldatzen.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko ekainaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da tokiko eskolatze batzordeen osatze, antolaketa eta eginkizunak aldatzen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du aldatzen Tokiko Eskolatze Batzordeei buruz apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretuan islaturik agertzen ziren osatze, antolaketa eta eginkizunak, halako moduz non ikuspegi komunitarioa bermatuko baita, udalen eta ikasleak eskolatzeko prozesuan inplikaturiko ikastetxeen parte-hartzearekin”.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarrizko Laguntzari buruzko Ekintza Plan bat gara dezan.**

### **OSASUN BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko ekainaren 15ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarrizko Laguntzari buruzko Ekintza Plan bat gara dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta haren mendeko erakunde autonomoak premiatzen ditu honako hauek egin ditzaten:

1.- 2021eko bigarren seihilekoan.

1.1. Oinarrizko Osasun Laguntzako Ekintza Plana garatu, aurrekontu-konpromiso eta guzti, aldaketa estruktural eta funtzionalak lortzera bideratutako helburuak zehatzago definituta, kronograma eta ebaluazio-adierazleak zehaztuta. Hori dena ahalik eta gehiena adostuta Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalekin.

1.2. Osasun etxe guztietan bermatu arreta presentziala pixkanaka % 60ra iritsi arte areagotuko dela, eta kontsulta-eskari espontaneo guztiak 72 ordu pasa baino lehenago artatuko direla. Eskaria kudeatzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta arreta presentziala protokolizatzeke plan bat abian jarri.

1.3. Azterlan bat egin Oinarrizko Osasun Laguntzaren arloko eta ospitale-arloko profesionalen arteko ordainsari-diferentziak identifikatzeko, ordainsari horiek parekatzeke xedez, eta kudeatzaileak ordainsariei buruzko proposamen bat egin dezan.

1.4. Barneko mediku egoiliarrek eta erizain-graduazio berriak kontratatzeke plan bat, bermatze aldera haien fidelizazioa eta gure erkidegoan gera daitezen prestakuntza-aldia amaitzen dutenean.

1.5. Herritarrei zuzendutako komunikazio-estrategia bat taxutu, bideratua Oinarrizko Osasun Laguntzako lana balioan jartzera, zerbitzu-erabilera egokira (osasun-karpeta, sartzeko modalitate berriak), profesionaletik eta haien antolamenduarekiko konfiantza sustatzera, eta haien inplikazioarekiko eta parte-hartzearekiko konpromisora.

1.6. Oinarrizko Osasun Laguntza sendotze aldera 2020an kontrataturiko langileak (ehundik gora, bereziki erizainak) Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeetan integratu, erizaintza arloko lan- eta antolamendu-eredu berriekin.

1.7. Osasun-laguntza jarraitu eta urgentearen erreforma-plana aurkeztu.

2.- 2021eko lehen seihilekoan.

2.1. Plantillak dimentsionatzeko proposamen bat egin oinarrizko eskualde bakoitzerako, etxeko laguntza nahiz gizarte-egoitzetako barne hartuko dituen zerbitzu-zorro bat bermaturik, bai eta osasunaren sustapena, arreta komunitarioa eta ikastetxeetako bermatuta ere. Oinarrizko osasun eskualde /barrutien agregazio-mailan aurreikusirik lanbide-profil berriak atxikitzea Oinarrizko Osasun Laguntzan: psikologia, fisioterapia, osasun publikoa eta osasun-kudeaketa.

2.2. Beharrezkoak diren administrazio-izapideak egitea plantilla organikoan sendotze aldera COVID-19aren larrialdirako jada kontratatutako erizaintzako 110 lanpostuak, administrazio-ko 14 langileak eta gizarte-laneko 5ak, jada 2021ean OOLTetan txertatuak, betiere aurretiaz zehazturik atxikitze-zentroak, funtzioak eta eginkizunak.

2.3. Enplegu-eskaintza publikoaren deialdi bat egin 2022an, Oinarrizko Osasun Laguntzan dauden lanpostu hutsak sendotzeko.

2.4. Beharrezkoak diren araudi-aldaketak sustatu, osasun-mailetan sartze aldera gizarte-laneko langileak eta OOLTetako administrazio-langileak.

2.5. Aurrekontu-konpromisoa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorretan Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako finantzaketa bi urtean izan dadin Osasun Departamentuaren aurrekontu osoaren ehuneko 20koa, osasun arloa bideratutako funtsak areagotzearen testuinguru global baten barruan, erreferentzia gisa BPGa eta aurrekontu orokorrak hartuta, egungo Gobernuaren programa-akordioan jasotzen den moduan.

2.6. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako Oinarrizko Osasun Laguntzako langileen araubide bereziari buruzko 11/1992 Foru Legearekin lotutako araudia aldatzeko proposamena Nafarroako Parlamentuari aurkeztu, ordainsari-osagarriak aldatuta, Ospitaleko Laguntzakoekin parekatzeko.

2.7. Osasunari buruzko foru lege berri baten zirriborroa aurkeztu Nafarroako Parlamentuari, osasun-laguntza unibertsal, ekitatibo eta kalitatezkoa bermatzeko, ezertan galarazi gabe premiazkoak eta lehentasunezkoak diren araudiak aurreratu ahal izatea, hori lagungarria izanez gero

Osasun Laguntzaren Erronkaren helburuak eta mozio honetako gainerako puntuetakoak aplikatzeko”.

Iruñean, 2021eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da albait lasterren taxutu ditzan Modou Khadim Ribaforadara lehenbailehen itzultzeko behar diren prozedurak.**

*MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak, 2021eko ekainaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du María Luisa De Simon Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita albait lasterren taxutu ditzan Modou Khadim Ribaforadara lehenbailehen itzultzeko behar diren

prozedurak. Mozioa 2021eko ekainaren 3ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Apustu-etxeen Nafar Araubidea prestatzeko Ponentziaren txostena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikularekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren 2021eko ekainaren 10eko Erabakia, zeinaren bidez onesten baita Apustu-etxeen Nafar Araubidea prestatzeko Ponentziaren txostena.

Iruñean, 2021eko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Apustu-etxeen Nafar Araubidea prestatzeko Ponentziaren txostena**

#### **I SARRERA**

Ponentzia hau eratu da kezka sozial eta politikoa sortu delako kiroletako apustu-mota desberdinek urte oso gutxian izan duten gorakadagatik eta tankera horretako jokoarekin zerikusia duten gazte-ludopatien areagotzeagatik. Ponentziak arazo honi araubide berri baten beharrean dagoen osasun publikoko problematzat iritzi dio.

Egonezinen jatorrian daude familiak, nerabe eta gazteekin diharduten profesionalak, prebentzio-alorrean diharduten eta jokoarekin –batez ere kirol-apustuekin– erlazio patologikoa duten pertsonen laguntzen dieten elkarteak, bai eta maila guztietako administrazio publikoek nahiz zenbait entitate pribatuk eginiko azterlan ezberdinak ere.

Drogei buruzko Plan Nazionalaren inkestaren arabera, joko problematikoak 15etik 64 urtera bitarteko mila espainiar bakoitzetik lauri erasaten die, eta mila bakoitzeko hiruk joko-nahasmendu bat pairatzen dute. Datu horiek Nafarroara estrapolaturik, emaitza da 1.600 pertsona inguru joko-zale problematiko direla, eta 1.200 pertsona ludopatian erorita daudekeela. Ohikotasunez nahiz esporadikoki jokoan aritzen diren pertsonetatik % 15 kontsumo problematikoan erori dira, eta % 9, ludopatian. Beraz, ez da kasualitatea Osasuna-

ren Mundu Erakundeak jokabide-nahasmendutzat aitortua izatea ludopatia.

Ildo horretan, 2018-2023 urteetarako Drogei eta Adikzioen Prebentzioari buruzko III. Planak lehenbizikoz aintzat hartu ditu substantziarik gabeko adikzioak, haiek jorrazteko. Planak erronka eta lehentasuntzat jasotzen ditu tabakoa, teknologia berriak eta joko patologikoaren prebentzioa; eta, kirol-apustuei dagokienez, beharrezkoak ditu eguneraketak, jardun horretan gertatzen diren aldaketen araberakoak.

Europako Batzordeak, 2014ko uztailaren 14ko Gomendioan, online jokoko zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko printzipioei eta adingabeen online jokoen prebentzioari buruzkoak, estatu kideei aholkatzen die zain dezaten kontsumitzaile, erabiltzaile eta adingabeen babesaren maila altua izan dadin, online jokoko zerbitzuei eta zerbitzu horien komunikazio komertzial arduratsuari aplikatzekoak diren printzipioak ezarri, haien osasuna babestearren eta, halaber, konpultsiozko nahiz gehiegizko jokotik erator litekeen balizko kalte ekonomikoa minimizatzearen.

Europako Parlamentuak, barne merkatuko online jokoi buruzko 2013ko irailaren 10eko Ebazpenean, Batzordeari eskatu zion ebalua zezan autobazterketa-erregistro nazionalen arteko balizko elkarreragingarritasuna, ezar zitzan adikzio-arriskuei buruzko sentsibilizazio-neurriak, eta azter zezan hirugarrenak identifikatzeko kontrol nahitaezkoak aplikatzearen aukera. Orobat eskatu zuen online jokoko operadoreak behartuak izan zitezkeen beren joko-webguneetan araugintza-agintariei buruzko informazioa eskaintzera eta adingabeentzako ohartarazpenak jasotzera, bai eta automurritzapenaren erabilera sustatzera ere.

Europako Parlamentuak dei ere egin zuen komunikazio komertzialak arduratsuak izateko printzipio amankomunen alde, eta proposatu zuen komunikazio komertzialek ohartarazpen argiak jaso zitzatela konpultsiozko jokoen ondorioei eta

joko-adikziorako arriskuei buruz. Horrez gain, komunikazio komertzialek ez lukete gehiegizkoak izan beharko, eta ez lirateke agertu beharko beraiaz adingabeei zuzenduriko edukiekin batera edo hartzailetzat adingabeak edukitzearen arriskua dutenekin batera.

Apustu-jokoaren kontsumo itxuragabearen ondorio patologikoak fenomeno global bilakatu dira. Halatan, Estatu Batuetako Psikologoaren Elkarteak bulkaden kontrolaren nahasmendutzat jotzen du apustu-jokoa. Ildo berean, kirol-apustuak osasun publikoko arazo bihurtu dira Ingalaterran, non zenbait unibertsitate-ikerlanek, besteak beste Batheko Unibertsitateak eginiko batek, esaten baitute kirol-apustuak Ingalaterrako gazteen familia-bizitza hondatzen ari direla.

Apustu-jokoak jardun ohikoa izan dira gizateariaren historia guztian zehar. Txinan badaude datu erregistratuak, joko horiek K.a. 2300. urtearen inguruan kokatzen dituztenak; bestetik, Egipton, badauzkate K.a. 1450. urtean halakoak existitzearen frogak. Ausazko jokoa erromatarrek ekarri zuten gurera, Kristo ondoko hirugarren mende inguruan.

F.M. Dostoievskyk, "Jokalaria" izeneko bere liburuan, esaldi baten bidez deskribatzen du zer den ludopatia: "Mailegua eskatu, eta nahi nuke itzuli. Hemen jokoa ezinbestean irabaziko nuelako ideia arraro eta zuhurtziagabea izan dut. Ez dakit zergatik izan dudan ideia hori, baina horretan sinetsi dut, ez baineukan beste aukerarik".

Santiago Pérez Camareroaren zuzendari-tzapean Max Weber Institutuak eginiko ikerketa, "Gazteria eta ausazko jokoa... Gazteen jokoa ikuspegi orokorra" izeneko eta Injuve-Gazteriarren Behatokiak argitaratua, gizakiek jokoa duten portaeraren analisi bat da, eta egiten dituen gomendioak errepikatu egin dituzte ponentziak izan dituen parte-hartzaileek.

Argitalpenaren aitzinsolasak testu bat jasotzen du, ponentzian egon diren bi ikuspegiak agertzen dituen: "Ikuspegi kultural edo soziologiko batetik, esan daiteke gizartearen baitan jokoa buruzko bi ikusmolde daudela. Batzuentzat, jokoa entretenimendu hutsa da, modua ematen duena harreman sozial positiboak eraikitze eta mota desberdinetako trebetasun pertsonalen garapena bideratzeko. Baina badaude beste ikusmolde bat ere, helduen jokoa jardun ezdeus, estualdi eta problema ugariaren iturburu eta atsegingarritasun iraunkor gutxi edo batere gabekotzat jotzen duena. Bi ikusmolde horiek jokoa esparruko bi errealiteri dagozkie, eta haien arteko bereizlerroa da joko arduratsua eta arduragabea bereizten dituen ber-

bera, eta halaber, joko osasungarria joko problematiko eta patologikotik bereizten duen horixe bera".

Gomendioei dagokienez, irizpen honen konklusioetan heldu die ponentziak: famili heziketa, esku-hartze goiztiarra, informazio- eta sentzibilizazio-kanpainak, informazio- eta aholkularitza-zentroak, ikastetxeetako prebentzio-programak, jokoa eskaini edo errazteko moduei buruzko murriztapen edo aldarazpenak, nork joka dezakeen mugatzeko murriztapenak, prebentzioa eta publizitatearen gaineko kontrola.

Bestalde, Santiago de Compostelako Unibertsitatean adikzioaren prebentzioaren alorrean iker-tzaile den Antonio Rial Boubeta jaunak baieztatzen du apustu-jokoaren inguruko problematika honek baduela antzekotasunik kale-zurrutarekin.

Nolanahi dela ere, jende-gorakadari buruzko datuek, batez ere kirol-apustuetara zaletzen diren gazteei buruzkoek, diruzko jokoa modalitate horrek duen arriskuaz ohartarazten dute.

Estatu-mailan, Jokoa Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiak ukatu egiten du jokoa zerikusia duen osasun publikoko problema bat dagoela Espainian. Izan ere, 2015ean egin zuen prebalentzia-azterlan batean halaxe zioen, eta Drogei buruzko Plan Nazionalak adierazten zuen Espainian zeuden ludopatia-portzentajeak ez zirela osasun publikoko problema bati buruz hitz egi-terainoko modukoak.

Joko problematikoak populazioaren % 0,4 ukitzen du. Eman lezake ez direla kopuru handiak, baina erasate nabarmena da, eta, nolanahi ere, prebentzioa landu beharra dago, bai eta jardun horrekin zerikusia duten nahaste fisiko eta mentalen lehengoratzeari ere, hala egiten ez bada progresio geometrikoko gorakada bat aurreikusten baita.

Bestetik, publizitateak oso inpaktu negatiboa dauka gazteengan. Jokoa edo apustu-etxeak iragartzen dituzten kirolari entzutetsuen irudiek azken batean normalizatu egiten dute kirol-apustuak bezain jardura arriskutsu bat, gero eta adiktiboagoa bilakatzen ari dena. Hori dela-eta, ponentziak beharrezko ikusten du babesletza araupetzea, eta gazteen kirol-erreferenteek ez dezaten jokoa publizitate eraman beren janzkietan, edo ez dezaten apustuari buruzko publizitate-kanpainetan parte har.

Estatuan, azken bost urteotan jokoa eginiko publizitate-inbertsioaren maila hirukoiztu egin da, eta bezero gazteen gorakada nabarmena ekarri du. Horrela, jokalaria gazteenen segmentuak (18tik

25 urtera bitartekoak) jokalaria berri guztien % 29 egin zuen 2016an,; % 28 2017an, % 36 2018an eta % 40 2019an. Gainera, Espainian ausazko jokoetan parte hartzen duten 18 eta 19 urteko pertsonen gorakada etengabe eta iraunkorra detektatu da.

Zertzelada horrek gogoeta eginarazten digu aipatu jardunak gure gazteriarengan izan dezakeen eragin-motaz eta gazteei eskaintzen dizkiegun aisialdi-aukerez; izan ere, zientzialarien komunitateak ederkitxo daki joko-portabidearen hasiera goiztiarra jokatik eratorritako problemen larritasunaren eta erasapenaren iragarle nabarmena dela. Horrenbestez, ausazko jokoetan adin goiztiarrez parte hartzen duten gazte gehiago baldin badaude, begi-bistakoa da ezen, joera horrek eutsi egiten badio, urte batzuen joanean jardun horren ondoriozko problemak eta arriskuak nabarmen areagotuko direla.

Datu horiei erantsi behar diegu operadoreen diru-sarrereren parterik handiena kontsumitzailekopuru murrizt batean ari dela kontzentratzen, eta Jokoratze Debekuen Erregistro Orokorrean izen emandako pertsonen kopurua gehitzen ari dela, pasa baita 2015ean 35.000koa izatetik 2020an 54.000 ingurukoa izatera.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, kirol-apustugintzak gorakada geraezina izan du. Establezimendu publikoetan jarrita dauden kirol-apustu-erakundeak makinak nagusitzen ari zaizkie B motako makinei, halako moldez non bihurtzen ari baitira nafarrek diru gehien gastatzen duten joko-modalitatea.

Datu horiek guztiek erakusten dute kirol-apustuak izanen direla etorkizun ez oso urrunean dirurik gehien erakarriko duen joko-mota, orain arte izandako gorakadak bere bilakabideari eutsiz gero. Igoera horren berri ematen du Nafarroako apustu-makinen parkeak: 2018an 1.138 izateraino iritsi ziren, urtebete lehenago 981 izatetik. Aipatu kopuruak ia bikoiztu egiten du duela lau urte instalatuta zeuden 675 makinen kopurua. Kirol-apustuen hedapenarekin alderatuta, makina “-txanponjale”en parkeak berdintsu iraun zuen iaz Nafarroan, aurreko ekitaldiarekiko 20 unitate egin baitzuen behera; guztira 1.945 makina zeuden. Lau urte lehenago, berriz, 1.986 zeuden Foru Komunitatean.

“Apustu-etxe”en araupetzeari ekiteko eskumenei buruz Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek jaulkitako txostenak argiro ezartzen du joko-kontuetan Nafarroak daukan eskumen-eremua eta, beraz, zehazki kirol-apustuei dagokienez. Era horretan arautu izan da, orain arte, jokoarekin

zerikusia duen jarduera eta, zehazki, kirol-apustuekin zerikusia duena.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskuboa dauka kasino, joko eta apustuei dagokienez; bereziki, kirol-apustuen gainean (Foru Hobetzea). Orobat du eskumena jokoaren publizitatea Nafarroan debekatu edo mugatzeko, eta halaxe egin zuen, hurrenez hurren, ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legearen eta abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen bitartez. Halaber, Estatuko Administrazio Orokorrentzat erreserbatuta ez dagoen joko presentzialaren gaineko eskumenak ere badauzka –besteak beste, apustuen gainekoak–, esparru autonomikoko online jokoaren gainekoak (autonomia erkidegoko egoiliar direnek eginikoa), bai eta Foru Komunitateaz haraindiko esparru batean eginiko online jokoaren gainekoak, baldin bi autonomia erkidego edo gehiagoren arteko aurretiazko akordioa badago. Era berean, eskudun da jokoaren gaineko murriztapen-neurriak hartzeko eta haur nahiz nerabeak babesteko, bai eta, are, ostalaritza-establezimenduetan apustumakinak debekatzeko ere.

Bestalde, hezkuntzaren, osasungintzaren eta gizarte-laguntzaren alorretako eskumenei lotura estua daukate joko problematikoaren eta ludopatiaren prebentzio eta tratamenduetarekin.

Ponentziak bere lanaren jomugatzat apustuak hartu ditu; hots, Nafarroan aurki daitezkeen titulartasun pribatuko jokoetako bat. Ez dira, beraz, aintzat hartu bingo-jokoa, sari programatutako makinak bidez eginiko jokoak, zozketak, tonbolak eta ausazko konbinazioak.

Galdera franko dira egin ditugunak: Nafarroan kirol-apustu-erakundeak dauden establezimenduak eta makinak nahikoak dira, ala gehiegi daude? Nahikoa al da jokalaria kontrolatu eta babestea? Bidezkoa al da prebentzio-, disuasio- eta kontrol-neurriak ezartzea adikzioak edo joko problematikoa ekidin eta joko arduratsua bermatzeko? Komeni al litzateke apustu fisikoak establezimendu zehatzetara, apustu-areto eta -dendetara, mugatzea? Zergatik sortzen da diruzko apustua eginez jokatzeak bulkada eutsiezina? Zergatik gertatzen dira hain erakargarri kirol-apustuak? Nola antzeman ludopatia-kasu bati? Zergatik ari dira kirol-apustuak gero eta adin goiztiaragoetan hasten? Zer ari da gertatzen? Ponentziaren aribidean galdera horiek guztiek jaso dituzte, neurri handi edo txikiagoan, erantzun askotarikoak.

Nabaria gertatu da gai honi heltzearen premia, bai eritasun-prebentzioko ikuspegi batetik, bai sendatzearen edo, bederen, sortzen dituen efektuak samurtzearen ikuspegitik. Ludopatiaren eta



joko problematikoaren tratamenduak herritarren interpelazioa eragiten du, eta horrek beharrezko egiten du osasungintzaren, hezkuntzaren eta esku-hartze sozio-komunitarioaren jardun koordinatua, bai eta apustu-jokoaren araubidea ildoberritzea, Nafarroaren eskumen-esparruan betiere.

Xedea da, proposamen honetan, kirol-apustuei dagokienez Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskumenak erabiltzea, interes orokorra babestu eta osasun publikoko problemak prebenitu eta saihesteko beharrezkoak diren murriztapenak ezarri.

Asmoa da neurriak hartzea adikzioaren arriskuak urritzeko, irisgarritasuna murrizteko eta "maletaren eraginpea" gutxitzeko; babes-faktoreetan eragitea hezkuntzaren eta gizarte-sentsibilizazioaren bitartez; azken batean, hezkuntzaren, familiaren, gizartearen eta osasungintzaren alorren interakziorako jardunbideak ezarzea.

Legegintzaren alorreko urratsak eta aldaketak proposatzen dira lokalen, makinaren, irekitze- eta ixte-ordutegien, kontrolaren, publikitatearen eta babesletzaren plangintza eta arauketarako.

## II. AURREKARIAK

1. Izquierda-Ezkerraren talde parlamentarioak "apustu-etxeen" arauketari heltzeko ponentzia bat eratzeko ekimen bat aurkeztu ondoren, Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak 2019ko urriaren 2an erabaki zuen ponentzia parlamentario bat eratzeari afera hori aztertzeko. Kasuko argitalpena 2019ko urriaren 4ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean egin zen.

2. Ponentzia 2019ko urriaren 25ean eratu zen, eta honako kide hauek izan ditu, Legebiltzarreko talde parlamentarioek eta foru parlamentariaren elkarteek izendatuta: José Suárez Benito jauna, Jorge Aguirre Oviedo jauna, Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea, Bakartxo Ruiz Jaso andrea, Ainhoa Aznárez Igarza andrea eta María Luisa de Simón Caballero andrea. Ponentzia Legebiltzarreko legelari Nekane Iriarte Amigot andreari esleitu zitzaion.

Eratze-bilkura hartan, ponentziaburu izateko María Luisa de Simón Caballero andrea hautatu zen, eta ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak onetsi ziren, zeinak 2019ko urriaren 29ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitziren.

Ponentziaren arribidean zehar, Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak ordeztu zuen Bakartxo

Ruiz Jaso andrea, eta legelari Miguel Ángel Laurenz Itoiz jaunak, Nekane Iriarte Amigot andrea.

3. Bidea urratzen hasi zenetik, ponentzia aha-legindu da bere azterlanari ikuspegi desberdinetatik heltzen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio departamentu ezberdinen lankidetzara eta urgazpena eskatuz, bai eta jokoaren alderdi desberdinetan zeresana duten erakunde autonomoena ere. Halaber, ponentziak bilkura-egutegi bat prestatu zuen, ahalegina eginik zeresana duten gizarte-eragile guztiek agerraldia egin zezaten: hasi zenbait enpresaburu-erakundetatik, zeinei Nafarroako joko-araubidearen aldaketak erasan ahalko liekeen beren jardueran, eta herritarren elkarte eta interes desberdinak ordezkatzeko entitateetaraino, zeinek agerian utzi baitute adikzio bat dela ludopatia, eragin astunak dituen pertsonen eta haien famili ingurunearen osasunean eta ekonomian. Horregatik guztiagatik, eskerrak eman beharrez gaude jokoa erasaten dien arlo desberdinetan inplikaturik dauden eragile guztiei, ponentzia honen zortzi saiotan izan duten parte-hartzeagatik eta dokumentazio jori eta baliotsua eskuratu digutelako, ponentziaren administrazio-espedituari erantsi zaiona.

4. Ondorioz, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, ponentziak Parlamentuko Mahaiari jakinarazten dio bere lana amaitu duela, Mahaiak Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordearen deialdia egin dezan, bidezkoa bada eztabaidari jarraipena emateko.

## III. JOKOA. ARAUBIDEA, EGUNGO EGOERA ETA PERSPEKTIBAK

A) Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen-eremua.

Joko-jarduerak arautzeko eskumena Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean dago banatuta. Batetik, Estatuaren eskumena eskusiboa da estatu-eremu batean egiten denean jarduerak, presentziala denean nahiz bide elektronikoak, informatikoak, telematikoak eta interaktiboak erabiliz egiten denean. Bestetik, autonomia erkidegoek gai honen gaineko eskumenak har ditzakete jokoa beren lurralde-esparru zorrotzera mugaturik egiten denean, zein ere den joko-egikera.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitu zion kasinoko, joko eta apustuen arloko eskumen eskusiboa, Kirol Ongintzako Elkarrekiko Apustuak salbuetsita. Xedapen hori mamitu zen urtarrilaren 24ko 226/1986 Errege

Dekretuan, zeinaren bidez eskualdatu baitziren aipatu eskumenak. Arau horren indarrez, Nafarroari dagokio baimena ematea, besteak beste, kasinoen, bingo-aretoen, joko-aretoen eta apustu-denden instalazio, irekitze eta funtzionamendurako, bai eta jolas-makinak nahiz zorizko jokoetarako makinak ustiatzeko ere, Foru Komunitatearen esparruan.

Eskumen hori egikaritzuz, ekainaren 27ko Nafarroako Joko eta Apustuen 11/1989 Foru Legeak – jada indargabeturik dago – eta, gaur egun, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeak joko-jarduera arautu dute jokoaren enpresa-jardun gisa ulerturik; eta, aldi berean, gizarte-sektore zaugarrienak direnen eskubideak babesten saiatu dira, haien osasuna edo ekonomia kaltetuenik suerta litekeelakoan joko-jardunaren gehiegizko eta itxura gabeko kontsumoaren ondorioz.

Foru legedia garatzeko, Nafarroako Gobernuak arian-arian tankeratu du joko-sektorea osatzen duten jardueretako bakoitzaren berariazko araubidea, honako arau hauen bitartez:

– 73/2010 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako Bingoaren Erregelamendua onesten duena.

– Abuztuaren 30eko 270/1999 Foru Dekretua, Joko Aretoen Erregelamendua onesten duena.

– 94/1991 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Rifa, Tonbola eta Zorizko Konbinazioen Arautegia onesten duena.

– 181/1990 Foru Dekretua, uztailaren 31koa, Joko Makinetarako Arautegia onesten duena.

– 74/1989 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Joko Makinak instalatzeko Baimenak arautzen dituena.

Kontuan hartu behar da zerrenda horretan ez dela agertzen 16/2011 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Apustuen Erregelamendua onesten duena, arau hori baliogabetu egin baitzuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2014ko urtarrilaren 23ko epaiaren bidez (Auzitegi Gorenak berretsia, 833/2014 zenbakiko errekurtsioan emandako 2016ko martxoaren 8ko epaiaren bidez), halako moldez non gaur den egunean bat bera baita joko aretoak arautzen dituen araua eta apustu-denden gainekoa.

Halaber, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren ekainaren 23ko 98/2017 Foru Aginduaren bitartez, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorreko Kontrol, Ikuskarpen eta Zehapenerako I. Plan Orokorra onetsi zen. Plan horren 1. ardatzak (Joko alorra) adinga-

be eta gizatalde zaugarri batzuekin zerikusia duen jardun-ildo bat jasotzen du, xede nagusizat duena jokoan parte har dezaten eragozte eta enpresek joko-aretoetarako sarbidea eta jokortzea kontrolatzeko darabiltzaten protokoloen, jardun-arauen eta aplikazio edo gailu teknologikoen egokitasuna ebaluatzea.

B) Joko-sektorearen gainean Estatuak eginiko birmoldaketei buruzko azalpena

Adikzioei buruzko 2018-2020 Ekintza Planak, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioarenak, jokoaren adikzioetat hartzen du, eta Adikzioei buruzko 2017-2024 Estrategia Nazionalak helburu bezala ezartzen du jokoari eta online apustuei buruzko araudia berrikustea, haietarako irispideari eta haien sustapenari (publizitatea) dagokienez; batez ere, adingabeak babesteko araudiari dagokienez.

Zentzu berean, Arartekoaren 2019ko maiatzaren 14ko Ebazpenak, “Apustu-etxeen iragarrien ugaritzea eta publizitate mardula” aztergai harturik, adikzio-jokabidetzat hartzen du ludopatia, tratamendu homogeen eta osasun integraleko ikuspegiduna behar dituen. Halaber, herritarra joko-jardueretatik hurbilago ikusten du eta, hortaz, joko-eskaintzaren presentziaren oharmen handiagoa, bai eta azken urteotan joko-jarduerak asimilazio indartsua izan duela, neurri handi batean produktu eta merkaturatze-bide berriak sortu direlako; batez ere, online jokoaren, joko-aretoak eta kirol-apustuen denda presentzialak. Azken horiei dagokienez, egiaztatzen du autonomia erkidego batzuetan (besteak beste, Nafarroan) ostalaritza-establezimenduetan aurkitzen direla, eta nabarmenki ugari direla azken urteotan.

Jokoaren babesleztaren eta informazio-publizitatearen araubideari dagokionez, berriki garatu da estatu-araudia, azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretuaren bitartez (estatu-esparruko joko-jarduerari buruzko komunikazio komertzialei buruzkoa), adikziozko jokabideak prebenitzeko eta adingabeen nahiz beste gizatalde zaugarri batzuen eskubideak aldeztuko. Araubide hori aintzat harturik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzeko modukoa da, Foru Komunitatearen lurralderako ezartzearen Estatu legegileak jasotako arauak eta baldintzapenak.

Estatu-mailako zenbait arau dira aldatu direnak edo aldatuak izatekoak direnak, eta Estatuaren eskumenen esparrutik Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoak izanen direnak.

Aipatu den bezala, Estatuak aurrerapausoak eman ditu jokoaren arauketan, eta zuhurtasun-printzipioa aplikatu du 2020ko azaroaren 3ko



958/2020 Errege Dekretua onestearekin, zeinak arautzen baititu joko-jarduerei buruzko komunikazio komertzialak. II. tituluak, "Erabiltzaileen informazio eta babeserako politika aktiboak", nahiz eta ez duen jokoaren publizitatea debekatzen, mugatu egiten du, bai ikus-entzunezko sektorean, bai presentzian eta informazioaren gizaratean. Titulu horretan jasotako neurriek bilatzen dute adingabeak jokoaren publizitate babestea, haiek gizaratearentzat arrisku eta kalte nabarmenak dituen jardura bat aztertzeari ekitearen arriskua murriztuz. Asmotan du, halaber, pertsonarik gazteenak –eta, horrenbestez, publizitatearen aurrean eraginberenak direnak– ez daitezten jardura horretan has, eta beste aisialdi-eredu osasungarriago batzuk hauta ditzaten. Azkenik, jomuga du, halaber, jokoarekin jada problema bat sortu zaien pertsonak gauza izan daitezten jardura horretatik deskorapilatuz, publizitate-formulekin etengabe bonbardatuak izan gabe. Aipatu tituluaren jasotako neurri batzuk jasotzen dira jarraian:

- Debeku da elastikoen edo kirol-ekipamenduetan adierazitako babesletasuna.
- Debeku da operadore baten izena, marka edo izendapen komertziala erabiltzea kirolgune bat identifikatzeko.
- Debeku izanen da kirol-talde edo kirol-txapelketa baten izena ausazko jokoaren sektoreko operadore baten izenarekin ordeztzea edo operadorearen izena hari eranstea.
- Ez da babesletzarik onartuko adingabeentzat taxutuak diren edo nagusiki haiei zuzenduta dauden jardueretan, kirol-lehietan, ekitaldien emanaldietan, ondasunetan edo zerbitzuetan.
- Bezero berriak lortzeko bonuen debekua, zein diren ere sustapenaren baldintzak.
- Kirol- eta norgehiagoka-apustuei buruzko doako erakustaldien debekua, zein ere den erabilitako bitartekoa, horrela babestearren, bereziki, joko patologikoa pairatzen duten gizatalde zaurgarriak, bai eta haur nahiz nerabeak ere.
- Komunikazio komertzialetan oihartzun edo entzute publikoko pertsonen nahiz pertsonaien agerpenaren debekua, errealak nahiz fikziozkoak direla ere.
- Ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzuetan, joko-operadoreen komunikazio komertzialak 01:00etik 05:00etara bitartean baizik ezin izanen dira eman.
- Posta elektronikoen edo komunikazio elektronikoko beste bide baliokide baten bitarteko komunikazio komertzialak interesdunaren adosta-

sunarekin baizik ez dituzte bidaltzen ahal joko-operadoreek.

- Erabiltzaile-profila duten sare sozialek joko-operadoreei buruzko publizitatea egiten ahalko dute, honako hauek badituzte soilik:
  - Komunikazio horiek adingabeei zuzenduta egotea ekiditeko bitartekoak.
  - Erabiltzaileei iragarkiak agertzea blokeatzeko edo haiek ezkutatzeko mekanismoak.
  - Komunikazio horien helmuga den publikoa segmentatzeko modua ematen duten lanabesak.

Beste neurri-sorta bat ere jasotzen du, bezeroak babesteari dagokionez operadoreek daukaten erantzukizunarekin zerikusia duena (informazioa, joko seguruaren alorreko laguntza, arriskuzko portuak detektatzeko protokoloak...).

Estatu-esparruko joko-arauketari dagokionez, Estatuan arau-mordo bat dago oraindik aldakizun.

Jendaurreko aldia berriki amaituta dauka Errege Dekretu proiektu batek zeinak arautzen baititu online-jokoaren ingurune seguruagoak, eta garrantzen baitu jokoaren arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen seigarren xedapen gehigarria.

Eginkizun dirau 1613/2011 Errege Dekretuaren eta 1614/2011 Errege Dekretuaren baterako aldakuntzak, bai eta gaur den egunean dauden jokoak arautuko dituen Ministerio Agindu bateratu baten prestaketak ere. Beraz, Nafarroako Foru Komunitateak egokitu egin beharko litzuzke arau berriak eta propio gisa bereganatzeko modukoak jotzen dituen beste batzuk.

C) Jokoak Nafarroan duen eraginaren gaur egungo analisiak.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak nafar gazteen kirol-apustugintzari buruzko datuak eskaini zituen (Drogei buruzko Plan Nazionalak 2018an eta 2019an eginiko inkesta bana). Horien arabera, 14tik 18 urtera bitarteko nafarren % 28k aitortzen du kirol-apustuak egin izana joko-lokaletan edo tabernetan, eta % 11 aritua da diruzko online jokoetan. Halere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarentzat deigarrien suertatu dena da apustugintzak arrapaladako gorakada duela 17-18 urteko adinean, joko presentzialaren % 40 inguru egiteraino, eta online jokoaren % 16.

Nafarroan, azken urteotan jokoak gora egin du, bai eskola-ikasleen artean (14tik 18 urtera bitartean) bai helduen artean, eta online jokoan bezala presentzian ere. Joko presentziala 14tik 18 urtera bitarteko segmentuan bakarrik jaisten da,

leunki jaitsi ere, online jokoak gorakada handia izan duelako, apika. Foru Komunitateko egoera hobeki aztertzearen, Institutuak lagin handiago baten gaineko inkesta berri bat egiteari ekin dio, eta horren berri aurki izanen dugula espero dugu.

Internetek bestelakotu egin ditu ausazko jokoak; batik bat, kirol-apustuak. Haietan jokoratzeko erraztasunak modua ematen du eguneko nahiz gaueko edozein ordutan aritzeko jokoan. Anonimotasunak eta sari-eskuratzearen berehalakotasunak nahaste mentala elikatzen dute, eta jokoratzetxe-UNETIK adikzio-agerpena arte igarotako denbora laburtzen dute. Gazteen konpultsiozko Internet-erabileraren datuak ezagunak dira, eta tasa % 16,5ekoa da, nahiz eta nesken artean % 21,9ra iristen den. Halaber, adingabeen % 38,8k helduentzako webguneak bisitatzen dituzte astero.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak "polikontsumo" direlakoak nabarmetzen ditu, eta zehazki joko-lokaletan eginiko alkohol-kontsumoa, eragina izan baitezake oharmenean eta erabakiak hartzerakoan.

Jokoaren sektoreak milioika euro mugitzen ditu urtero Nafarroan. Nafarroako Gobernuak Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuak eginiko 2020ko Jokoaren Oroitidazkiak agerian utzi du nafar gizarteak jokora bideratzen duen diru-kopuruak gorakada mardula izan duela. Halatan, 2013-2019 epean, jokaturiko diru-kopurua pasa da 294,48 milioikoa izatetik 368,64 milioi eurokoa izatera. Aldaketa ohargarri horretan, gorakadarik handiena izan duena apustu-jokoa da: % 117,52 igo da (92,58 milioi 2019an, 2013ko 42,56 milioi euroei kontrajarririk). Izan ere, aipatu aldian izandako gorakadaren bi heren hartu ditu (50,02 milioi, sektorearen osotasunak izan duen 73,91 milioi euroko gorakada orokorretik). Datu horiek azaltzen dute kirol-apustuen negozioak eta apustugileen kopuruak ere izan duten gorakada azkarra.

Sektore pribatuak hartzen du Nafarroan jokaturiko kopuruaren parterik handiena. 2019an jokaturiko kopuruaren % 65,80az ari gara. Portzentaje hori handixeagoa da 2018an eta 2017an izandakoak baino (% 64,97 eta % 63,26, hurrenez hurren). Nafarroan jokaturiko kopuru osotik, apustuek % 25 egiten dute.

Kudeaketa pribatuko jokoetan jokaturiko kopuruak % 38,2ko hazkundea izan du, 67,18 milioi euro igoz 2013tik 2019ra bitarteko urteetan (175,4 milioitik 242,58 milioi eurora), eta % 5,9 hazi da

2018. urtearekiko. Azken zazpi urteotako zenbaterik altuena iritsi du, apustuek izandako gehikuntzaren ondorioz (horiengatik diru-bilketa % 7,11 hazi da aurreko urtearen aldean) eta, hein txikiagoan, joko-makinenarengatik, epe berean % 4,40 hazi baitira. Bestalde, kudeaketa publikoko jokoetan jokaturiko kopurua zertxobait hazi da (% 1,59) 2018. urtearekin alderatuta.

Fabrikatzaile, merkaturatzaile eta banatzaile diren enpresak 2018an 58 izatetik 2020an 63 izatera pasa dira.

2020ko abenduaren 31n ustiapenean 72 lokal dauden Nafarroan, 58 apustu-etxe eta 11 jokoreto, bai eta apustu-makina osagarriak ustiatzeko 1417 baimen ere (iraungitakorik ez, eta 100 baimen berri).

Foruzaingoaren Joko eta Ikuskizunen Brigadak datu objektiboak eskaini zituen adingabeek apustu-dendetara eta joko-aretoetara izandako sarrerari buruz. Establezimendu horiek harrera-kontrolerako neurri zorrotzak aplikatzen dituzte, adingabeak sartzea eragotzirik. Taberna eta hoteletan eginiko apustuak kontrolatzeko zailtasunak adierazi zituzten; hainbestearinokoak non, esate baterako, haietako askok itzali egiten baitituzte terminalak institutuen jolasgarrietan.

Apustuak egiteko modua eskaintzen duten establezimenduei etengabe egiten zaizkie ikuskapenak. 2018-2020 aldian ikuskapen- eta salaketa-kopuruak behera egin zuen, COVID-19aren ondoriozko pandemia-egoerarengatik lokalak itxita eta edukiera-mugapenekin egon baitira. Nolanahi dela ere, ondoriozta daiteke ikuskapen-zereginek beren funtzioa betetzen dutela.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kirol-apustugintzako jarduerak aitorturiko diru-sarrerari buruzko datuak eskaini ditu, eta ohartarazi du apustu-establezimenduen diru-sarreraren gorakadaren berri eman dutela, 2020an izan ezik (pandemiaren ondorioz). 2016an, diru-sarrera aitortuak 10.073.426,48 eurokoak izan ziren; 2017an, 11.895.317,94 eurokoak; 2018an, 13.285.289,45 eurokoak; 2019an, 13.900.785,85 eurokoak; eta 2020an 10.967.391,14 euroraino jaitsi ziren.

Aurrekoekin korrelazioan, aipatu establezimenduetan eta bertako nahiz ostalaritza- establezimenduetako eta bingo-aretoetako makinen bidez eginiko apustuei Jokoaren gaineko Tasa Fiskala aplikatuz bildutako tributu-zenbatekoak honako hauek izan dira:

Urtea	2016	2017	2018	2019	2020
Zerga-tasa	% 10	% 12)	% 12	% 12),	% 20
Tributuen diru-sarrera, eurotan	1.007.342,57	1.427.438,07	1.594.234,65	1.668.094,22	2.193.478,16

Ogasun Departamentuak 2020. urteko COVID-19rik gabeko agertoki baterako zeuzkan diru-bilketa aurreikuspenek adierazten dute diru-bilketa hagitez handiagoa izanen zela, ezen, apustu-etxe horiek aitorturiko diru-sarrerek izandako goranzko bilakaera kontuan harturik, zerga-igoera-ekin batera, 2020rako espero izandako diru-sarrera 3 milioi euroren ingurukoa izanen zen.

COVID-19aren ondoriozko murrizketek eta Nafarroako Gobernuaren araugintzaz ezarriritako joko-moratoriak eragin dute inolako ustiapen-baimenik eman ez izana joko-areto, apustu-denda edo bingoetarako, joko-areto baterako ustiapen-

baimenerako eskaera bat onartu ez izana, eta ustiapen-baimena daukaten bi joko-aretotan joko-makinak instalatze aldera enpresa operadore batzuek aurkezturiko bi eskaera onartu ez izana. Ondorioz, bi joko-areto horiek ez diote funtzionamenduari ekin.

Apustu egindako kopuruei eta banaturiko sariei dagokienez, hona hemen datuak, barne harturik Nafarroan makina “kokatuak” dituzten enpresa operadore guztiak, dela enpresa operadoreen areto propioetan, dela Nafarroako ostalaritza-establezimenduetan banatuak.

Urtea	2016	2017	2018	2019	2020
Apustu egindako kopuruak	66.613.429,49	73.914.426,89	86.435.868,97	92.584.309,36	71.286.378,57
Banaturiko sariak	56.540.003,01	62.019.108,95	73.150.579,52	78.683.523,51	60.318.987,43

Foru Komunitateko gazteriarren esparruan “Nafarroako gazteen artean ausazko jokoek duten errealtaterako hurbilketa” izeneko azterlana egin dute berriki Nafarroako Kutxa Fundazioak, Aralar Elkarteak, Antox Elkarteak eta “Gizakia Helburu” Fundazioak. Azterlan horrek agerian jarri du ezen jokoan hastearen batez besteko adina 16 urtekoa dela, eta kirol-apustuak direla modalitaterik ohikoenena (% 40), eta apustugintza presentzialak (% 83) gaintitu egiten duela online apustugintza. Azterlanak ondorioztatzen du ezen, jokoak adikzio bihurtzen denean, droga-kontsumoa eta eskola-ikasmailen errepikapena ekarri ohi dituela. Bat gatoz haien proposamenetan, nerabe eta gazteen jokoratze-adina atzeratzeari, kirol-esparruan esku hartzeari, aisialdi osasungarriko alternatibak sortzeari, esparru akademikoan jarduteari, generodesberdintasunetan sakontzeari eta familiekin baterako prebentzio-lanari dagokienez.

Horri buruz, Nafarroako Institutu Zuzendarien Elkarteak jakinarazi du ludopatia-kasuen igoera nabari dela bigarren hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen artean, nagusiki bi arlotan: online jokoak eta ostalaritza-lokaletan paratuta dauden joko-makinak; bereziki, haietan jarrita dauden kirol-apustueterako makinak. Planteamendu hori koherentea da berriaz jokoari eskainiak diren lokalei buruz ia salaketarik ez egotearekin; izan ere,

haietan, sarbide-kontrolak adingabeei sarrera eragozten diete.

Nafarroako Udaleri eta Kontzejuen Federazioak ere ohartarazten du berriaz jokorakoak ez diren establezimenduetan, tabernetan, kafetegietan eta abar gazteek joko-makinetara hurbiltzeko modua daukatela, eta beharrezkoa dela araudiak gai horri heltzea, makina horietarako baimenak murriztuz ikastetxeetatik edo gazte-guneetatik hurbil dauden establezimenduetarakoak direnean, eta/edo adingabeak haietaraino heltzeko kontrola indartuz.

Bestalde, jokoak duen adikzio-eragiletasunak, ludopatia-eragiletasun gisa ulertuta, hura osasun publikoaren ikuspegitik aztertzea justifikatzen du; hartara, botere publikoei dagokie behar diren prebentzio- eta erreazio-neurriak hartzea, sektorea aisialdi arduratsuaren mugapera bideratzekoak.

Nafarroako Osasun Publikoaren Aldeko Elkarteak bere txostena aurkeztu zion batzorde honi, eta bertan hausnarketa eta konklusio batzuk adierazten ditu, ponentziak bere egiten dituenak:

- Ohartarazten du kirol-apustuen adikzio- eta kalte-eragiletasunaz, ausazko joko hori ezaugarritzen duten berehalakotasun, iragankortasun eta maiztasuna tarteko; izan ere, nolakotasun horien

uztarketa hagitx da ahaltsua jardun hori azkar asko problematiko bihurtzeko.

- Publizitateaz:

- Gazte eta nerabeengan lotura bat dago publizitatearen eraginpean egotearen, joko-portaeraren eta joko problematikoaren artean. Hortik ondorioztatzen den konklusio orokorra da litekeena dela publizitateak adingabe eta gazteen ongizatearentzat apustu-jokoa bezalako problema bat mantentzen edo areagotzen laguntzea.

- Jokoaren publizitatea joko-portaeraren kausa bat izan daiteke, markari buruzko oharmena aldatuz eta gazteen artean jokoari ekiteko konfiantza handiagoa sustatuz.

- Lokalak eta online apustuen ugaritzeak izugarri areagotu du apustuen irisgarritasuna. Nahia piztu ondoren, okasioak oso ugariak dira.

- Kirol-apustua, eskaintzen dituen askotariko hautabideekin, talde-aisialdiari berritasuna, zirrara eta emozioa eransteko modu bilakatzen da.

- Kirol-apustuak eta jokoaren publizitatea normalizatu egin dira gazteen artean.

- Prebentzioari buruz egiten dituen proposamenak azpimarratzen ditugu:

- Joko patologiko eta ludopatiari prebentziozko erantzun globala emateak estrategia horiek guztiak erabiltzera behartzen du, eta arlo ezberdinetan esku hartzera: familiarena, hezkuntzarena, osasungintzarena, gizartearena, legegintzarena, lanbidearena.

- Marketin eta publizitatearen eraginbidea murriztu behar da, ingurune komunitario osasungarri eta babesleak sortuz, neurri horiek nerabe guztiei zuzenduz (familia, ikastetxea, auzoa, aisialdi-zentroak...).

- Kontsumoetatik babesteko faktoreak eta jarrera nahiz ohitura osasungarrien eta hauta-tzezkoen sustapena. – Arrisku-faktoredun taldeak (faktore biologikoak, psikologikoak, sozialak nahiz ingurunearenak) esparru guztietan (familia, eskola...).

- Droga-kontsumoen aurrean arriskuak murriztu eta jarrera arduratsuak sustatu. – Arrisku-faktoreak, kontsumo eta/edo portaera-problema dituzten gizabanakoak, esparru guztietan. – Arriskuak murriztu, portaera-problemei heldu eta erabilera problematikoak/mendekotasuna ekidin.

Nafarroako Gobernuak Osasun Mentalaren Zerbitzuak jakinarazi duenez, 2020. urtean zehar 72 pertsona izan ziren ludopatiengatik artatuak. Kopuru hori 2018koaren antzekoa da, baina lau-

koiztu egiten ditu orain dela hamarkada bat artaturiko kasuak. Gizon artatuak emakume artatuak halako zortzi dira. 2012. urtean artaturiko pazientekin alderatuta, 17-44 urte-tartean aurkitzen direnak gainerakoak halako bi dira ia. Datu muntadun bat da substantziekin adikzioengatik artaturiko pertsonarik gehienek problema dauzkatela jokoarekin eta apustuekin. 2018an, 21 pertsonak eskatu zuten jokoarekiko problemetarako tratamendua; 2019an, baina, 33k.

Osasun Mentaleko arduradunek azaldu zuteenez, estatistikek ez dituzte azaltzen lehen diagnostikotzat depresioa edo alkohol-gehiegikeria izanik jokoarekiko adikzio kasu larriak atzean dauzkaten kasuak. Nafarroako Ospitaleguneko Pabiloi Zuriko eguneko ospitalea da jokoarekiko adikziozko nahasmenduak tratatzeko baliabide nagusia.

Eguneko ospitaleak denboraldi batean zeharreko tratamendu intentsiboa ahalbidetzen du, familia eta gizartearengandiko isolamendurik gabekoa, erregimen irekikoa denez gero. Osasun Mentaleko profesionalak uste badute kasuko adikzio-graduak barnetegi-tratamendua behar duela, kasu horretarako hitzarmenak daude gaur egun “Gizakia Helburu”, Antox eta Ibarre-Multzoarekin. Hiru elkarte horiek errehabilitaziorako terapia-komunitateak daukate.

Osasun Mentaletik onartzen dute ezen, “ezjakintasunagatik edo aurreiritziengatik”, familia askok zuzenean jotzen dutela Aralar edo “Gizakia Helburu”-rengana laguntza eske, osasun-sistema publikora jo gabe. “Elkarte horiek lan bikaina egiten dute, esperientzia eta profesional onak daukate, baina Osasun Mentalak ere badauka lantalde espezializatu”. Horregatik, aholkatzen dute Oinarrizko Osasun Laguntzara ere jo dadila, Osasun Mentalera birbideratuak izateko, diagnostikoa egin eta tratamendua ezartze aldera. Bestalde, kontsultak jasotzen dituzte oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik, udaletatik, ikastetxeetatik eta beste-lako entitateetatik, jokoari buruzkoak, bai eta informazioaren eta komunikazioaren Teknologiei buruzkoak ere.

2019-2023 eperako Osasun Mentaleko Planak bere helburuen artean dauka “Nafarroako Osasun Mentalaren sarean hobetu beharra adikziozko nahasmenduen eta patologia bikoitzaren osotarako tratamendua”. Proposamenen atalean jasota daude Osasun Mentaleko Kudeatzaileak bere agerraldian mahaigaineratu zituen jardun-ildoak.

Aralar-Nafarroako Ludopaten Elkarteak hiru psikologo dauka banakako eta taldekako terapiarako. Elkarteko lehendakariak agerraldia egin



zuen urtarrilean ponentzian, eta ohartarazi elkar-  
tea “gainezka” dagoela eta itzarote-zerrenda dau-  
kala, kirol-apustuen mendean erori diren gazteen  
gorakada dela-eta. Aralarrek dio gazteetako ba-  
tzuek osasun-etxeko sendagileen aholkuari jarrai-  
tuz jotzen dutela haiengana. Administrazio publi-  
koari ekintza gehiago eskatzen dizkiote  
sentsibilizatorako, informaziorako eta errehabili-  
taziorako, pertsona zaurgarriak babesteko, adik-  
ziodunei eta haien familiei lagun egin eta lagun-  
tzeko, bai eta arauketa zorrotzagoa egin dadila  
publizitateaz, kokalekuaz, zehapenez, irekialdiaz,  
distantziaz, tabernetako sarrera-kontrolaz eta fis-  
kalitateaz.

Eskaera horietan bat datoz Gazteriaren Kon-  
tseilua eta Iruñeria Elkartea, zeinak Iruñeko auzo-  
etako kolektibo ezberdinak biltzen baititu. Horiek  
guztiek proposatzen dute ostalaritza-  
establezimenduetatik apustu-gailuak kentzea,  
apustu-makinak zorrotzkiago mugatzea eta horri  
buruzko kode etiko bat izan dezaten kirol-klubek  
eta eliteko kirolariek.

ANTROX-lkerketa, prebentzio eta droga-men-  
dekoen errehabilitaziorako nafar elkar-  
teak “PAUSE” programa bat egikaritzen du, helburu  
duena informazioaren eta komunikazioaren tekno-  
logiak eta jokoak modu seguru, arduratsu eta osa-  
sugarrian erabiltzea. Programa hori ez dago  
O-NOZekiko itunetan sartuta.

Kirol-apustuen kudeaketarekin zerikusia duten  
zenbait enpresari-elkar-  
teek beren iritzi eta eskaki-  
zunak plazaratu dituzte. Zer esanik ez, gure erki-  
degoan ehunka lanpostu sortu dituen sektore bat  
da, eta, oro har, joko arduratsuaren sustapenera-  
ko neurriak badaukate. Haietako batzuek horri  
buruzko auditoretzak egiten dituzte, ez zaienez  
interesgarri bere bezeroen artean ludopatak ego-  
tea. Orokorrean, joko-aretoak eta apustu-dendak  
dauzkaten nafar enpresek planak izan ohi dituzte  
jokalari problematikoei antzemateko eta apustu-  
aren arriskuei buruzko informazioa emateko, eta  
adingabeen sarrerari buruzko araudia betetzen  
dute.

Nafarroako Gobernuak lantalde bat sortu du  
jokoarekin zerikusia duten osasun-problemei hel-  
tzeko; bereziki, kirol apustuak prebentzio, kontrol  
eta eritasun-artapenaren ikuspegitik jorratzeko.  
Departamentuarterko talde horren ordezkari-  
tza batek ponentziari legegintzaren aldetik lantzeko  
modukoak diren zertzeladei buruzko informazioa  
eman zion. Barne Zuzendaritza Nagusiko Araubi-  
de Juridikoaren Zerbitzuak ponentziak Nafarroako  
Foru Komunitatearen eskumenei dagokienez  
landu litzakeen zertzeladei buruz informatu zuen,  
hala nola debekudunen erregistroaz, zehazpenez,

publizitateaz, neurri fiskalez, apustu-publizitatea  
erakusgai duten kirol-klubentzako dirulaguntzen  
mugapenez, ostalaritzako makinaren kontrolaz,  
babes bereziko eremuez eta abar.

Hori guztia ikusirik, nabaria da joko-modalitate  
ezberdinei dagokienez aldatu egin direla, berriki,  
gizartearen portaera-ereduak eta zaletasunak  
–batez ere, adin txikieneko taldeenak–, eta ager-  
pen ohargarria izan dutela kirol-apustuek; gehien-  
bat, online modalitateen bitartez.

Ponentzia hau eratu baino lehen, foru-legegile-  
ak abusuzko jokoak gizartearen daukan eraginari  
buruzko ezinegona ikusgai egin da jokoak erakar-  
garritasun txikiagoko jarduerara egitera bideraturiko  
zenbait neurritan; hala, joko-jardueraren gaineko  
zerga-tasa % 12tik % 20ra igo zuen 2020an, eta  
joko-areto, bingo edo apustu-erako berariazko  
lokalak ustiatzeko baimenak bertan behera utzi  
zieten.

Dena den, jasotako informazio joria ikusirik, i-  
tzuri ezinekoa da indarreko foru araudia aldatzeari  
ekitea, sektorearen araubidea egokituz joko  
arduratsuaren aldeko politika aktibo bat ezar-  
tzearen xedeari, pertsonarik zaurgarrienen babesa  
indartzeko.

Ponentziaren xede zehatzari heldurik, erabaki  
diren konklusioak “kirol-apustuen” sektorearen  
luze-zabalera mugatzen dira eta, bereziki, apustu-  
denden eta joko-aretoen baimentze- eta fun-  
tzionamendu-baldintzetara, ezertan galarazi gabe  
apustu-makinak joko-erakoak diren beste lokal  
batzuetan edo bestelako gune edo establezimen-  
du batzuetan ustiatzea, bai eta horiekin zerikusia  
duten babesletza- eta publizitate-jarduerak ere.

Ponentziak erabakitako konklusioen asmoa da  
enpresa-askatasunaren egikaritzea harmoniza-  
tzea joko-erabiltzaileak babestearekin; batez ere,  
adingabeak eta tutoretza-araubide baten edo  
epai- nahiz administrazio-laguntza baten pean  
dauden pertsonak. Alderdi horretatik, ekonomia-  
eta enpresa-jarduerak ezin die ezikusia egin joko-  
aren efektu adikzio-eragileei eta, horrenbestez,  
onartu behar du botere publikoek jarduerara horren  
gaineko kontrol estuagoa egin dezaten. Horrega-  
tik, nahiz eta konklusio horiek sektoreko enpresa-  
jardueren baimentze-, instalazio- eta aritze-baldin-  
tzetan Administrazioaren esku-hartzea  
gehitzearen ildokoak izan, begirunetsuak dira mer-  
katu-unitatea bermatzeari buruzko abenduaren  
9ko 20/2013 Legeari darizkion printzipioekin;  
zehazki, operadore ekonomikoaren ezarpen-askata-  
sunaren printzipioarekin eta jardueraren ezarpen  
eta funtzionamendurako galdaturiko baldintzak  
proportzionalak izatearekin.

#### IV. PROPOSAMENAK

A. Adikzioaren prebentzioa eta gaixotasunaren tratamendua.

##### A.1. Adikzioaren prebentzioa

1. Jokoan eta apustueta desegokiro aritzearen ondorioei buruzko sentsibilizazio eta kontzientziatorako informazio-estrategiak.

- Gazteei eta helduei zuzenduriko sentsibilizazio- eta kontzientziatio-estrategiak, hala nola ludopatiari buruzko informazio- eta prebentzio-kanpainak, populazio orokorrari zuzenduak, asmotan hartzen dutenak jokoarekin zerikusia duten ohitura eta portaera patologikoak kontrastatzea, sektore sozial zaurgarriengan arreta berezia ipiniz.

- Osasun-atarian informazio- eta prebentzio-materialaren dibulgazioa egitea.

- Joko patologikoaren prebentzio eta tratamendurako Nafarroako estrategia integrala prestatzea, zeregin horretan kolektibo kaltetuaren ordezkari-tasunik handieneko elkarten parte-hartzea eta lankidetzaren izanik.

- Administrazio publikoak lankidetzan aritzea kaltetuen elkarteekin, prebentzio- eta informazio-jardueren garapen eta egikaritzean.

2. Prestakuntza ematea irakasleei, sektoreko enpresetan diharduten langileei eta administrazio publikoetako langileei, adikzioei eta joko patologikoko esku-hartzeari buruz.

3. Hezkuntzaren alorreko prebentzio-neurriak

- Jokoan aritzearen ondoriozko eskola-hutssegiteak kontrolatzea.

- Partaidetza-guneak (familiak): portaera adikzio-eragileen kontrola.

- Hezkuntza-maila guztietako curriculum-educietan jasotzea joko-jardun arduragabearen eta ludopatiaren arriskuak.

- Ikastetxeetarako material lagungarri gisa curriculum-proposamenak prestatzea.

4. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan diru-zuzkidura egokia aurreikustea prebentzio- eta informazio-jarduerak egiteko, ludopatiaren aurka eta nahasmenduak tratatu eta haien ondoriozko errehabilitaziorako.

5. Aisialdirako alternatibak: Topaguneak, sozializazioa eta sormen handiagoko aisialdi osasungarriagoa sustatzea. Nerabezaroko eta gaztaroko aisialdia jorratzea herri-mailan aspalditik garaturiko prebentzio komunitarioaren alderdi bat

da, eta horretan jardun izan dira bai toki-entitateak bai gizarte-entitateak.

##### A.2. Gaixotasunaren tratamendua

1. Oinarrizko Osasun Laguntzan jarduteko protokoloa, gaixoak Osasun Mentalera igortzekoa.

2. Ludopatiak jotako pertsonentzako errehabilitazio-terapiak (gaixoak eta haien senitartekoak).

3. Prozedura bat taxutu eta garatzea, koordinatuta egon daitezen Osasun eta Hezkuntza departamentuak, udaletako gizarte-zerbitzuak, Gazteriarren Kontseilua eta zeresana duten beste elkarte batzuk.

4. Drogak eta adikzioak prebenitzeko Hirugarren Plana eguneratzea, 2018-2023 aldirakoa, jada erronka eta lehentasun gisa seinalatzen dituen tabakoa, teknologia berriak eta joko patologikoaren prebentzioa, eta urrats zehatzak sustatzen dituen adikzio-tratamenduak jasotzen duen helburua betetzeko (adikziozko nahasmenduen eta patologia bikoitzaren tratamendu integralaren hobekuntza Nafarroako osasun mentalaren sarean).

5. Adikziozko nahasmenduen Artatze Programa Transbertsala berrikustea, baliabide guztien, propio nahiz itunduen, zirkuitu integral eta integratu bat ezarriz, adikzio berriak eta patologia bikoitza hartuko dituztenak, populazio-talde horrentzako arretarik onena ahalbidetzeko.

6. Joko patologikoa artatu eta kudeatzeko unitate organiko eskuduna identifikatzea.

7. Osasun mentaleko zentro bakoitzean erreferentzia-taldeak sortzea, adikziozko nahasmenduak dituzten pertsonentzako arreta hobetu eta areagotzeko.

8. Adikziozko nahasmenduen eguneko ospitale berrantolatzea, nahasmendu horien tratamendu trinkorako.

9. Egungo eredia birplanteatzea eta adikziozko nahasmendu nahiz patologia bikoitzarako arreta soziosanitariorako eta egoitzazkorako arreta-eredu bat proposatzea.

10. Eskubide Sozialetako Departamentuarekin batera birgizarteratze- eta laneratze-baliabideen premiak aztertzea, adikziozko nahasmenduak eta patologia bikoitza dituzten pertsonentzat.

11. Oinarrizko Osasun Laguntzarekiko koordinazioa hobetzea, adikziozko nahasmenduekin zerikusia duten patologiei heltzeko.

## B. Arauketa

Jokoarekin zerikusia duten alderdi guztien arauketari dagokionez, hasi prebentzio eta prestakuntzatik eta publizitate, kirol-apustueta diharduten lokalen baldintzak edo distantziak eta fiskalitatearaino, eta kirol-apustuen jokoarekin zerikusia duten gaietan eskudun diren Nafarroako Gobernu departamentuei nahiz kolektibo eta enpresa guztiei entzun ondoren, beharrezkotzat jotzen da atal honetan zerrendaturiko proposamenak gauzatzea.

Nolanahi dela ere, proposatzen den araubideak esparru autonomikoa izanen du. Toki entitateek zilegi izanen dute beren udal dermiorako arauketa berariazkoa egitea, eta horrek errespetatu egin beharko ditu foru araudian ezarritako betekizunak eta gutxieneko distantziak.

B.1. Kirol-apustuetaarako lokalen instalazio eta arauketa.

1. Distantziei dagozkien mugapenak, aplikatu beharrekoak titulartasun publiko nahiz pribatuko edozein mailatako ikastetxeekiko, gazteriaren etxeekiko, hezkuntza- nahiz kirol-alorreko instalazio baimenduekiko eta tratamendu- nahiz errehabilitazio-zentroekiko.

Aginduzkoa izanen da haien kokalekuak 300 metroko distantzia errespetatzea, jabetza publikoko eremuan oinezkoentzako ibilbidetik joanda, eta ezertan galarazi gabe udal bakoitzak gutxieneko distantzia handitu ahal izatea.

2. Establezimenduen (apustu-etxe eta -denden) arteko gutxieneko distantziak.

Aginduzkoa izanen da haien kokalekuek 300 metroko distantzia errespetatzea, jabetza publikoko eremuan oinezkoentzako ibilbidetik joanda, eta ezertan galarazi gabe udal bakoitzak gutxieneko distantzia handitu ahal izatea.

3. Apustu-lokalen baldintzak.

- Lokalek 50 m<sup>2</sup>-ko gutxieneko azalera beharko dute izan.

- Aginduzkoa izanen da errotulu edo idazkun bat ipinita izan dezaten, apustu-lokal edo apustueremu direla jakinarazten duena.

- Ikusteko moduko toki batean afixa bat beharko dute paratuta eduki, lokalaren barruan bai eta kanpoan ere, adierazten duena adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribatuta dauden pertsonen debeku dutela apustueta parte hartzea.

- Harrera-zerbitzuan ikusteko moduko toki batean afixa bat beharko dute paratuta eduki,

lokalaren barruan bai eta kanpoan ere, adierazten duena apustu-jokoetan gehiegi jarduteak adikzioa eragin dezakeela.

- Joko-atarietan argiro adierazi beharko da adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribaturiko pertsonen debeku dutela apustueta parte hartzea.

- Joko-lokaletan alkoholun edariak edateko debekuaren ezarpena aztertzea.

4. Kirol-apustugailuen kopurua ostalaritza-establezimenduetan.

- Taberna, taberna berezi, kafetegi eta ikuskitzarako kafetegi gisa jarduteko berariazko baimena duten ostalaritza-establezimenduek apustu-makina osagarri bat baino ezin izanen dute instalatu, ezertan galarazi gabe lokal horietan B motako sari programatudun joko-makina bat instalatzeko baimena ematea.

- Instalatzen den apustu-makinak urruneko kontrol bitarteko aktibazio-desaktibazio sistema bat izan beharko du, establezimenduan arduradun diren langileek erabili ahal izanen duena, halako moldez non eragotzi eginen baita joko-debekudun diren pertsonen edo adingabeek jokatu ahal izatea. Joko-partidak amaitu ondoren, eta joko-makina erabilia izaten ari ez den bitartean, desaktibatuta egonen da, soinuak, ikusizko edo argizko kitzikagarriak ez dariola.

- Egokitzapen-epe bat ezarriko da, gaur den egunean ostalaritza-establezimenduetan paratuta dauden makinei urruneko kontrolaren bitarteko aktibazio-desaktibazio sistema jar dakien.

- Makina paratuta dagoen lokaleko arduradunek legez ezartzen diren joko-debekuak betearaztearen erantzukizuna hartzen dute.

- Horrelako makinak aipatu ostalaritza-establezimenduetan instalatzerakoan, ezin dira paratu terraza edo bide publikoetan, ez eta lokal kanpoaldean ere, ez eta ikastetxe-, unibertsitate-, osasungintza-, gizarte- edo gazteria- erai-kinen barneko eta kirol-guneetako tabernetan edo kafetegietan.

B.2 Joko-adikzioaren prebentzioa eta alor horretako prestakuntza.

1. Sektorean prestakuntza abiaraztea, drogamendekotasunen prebentziorako programa nazionalaren ildotik.

2. Apustu-enpresa eta -establezimenduetan aginduzkotzat ezartzea lokalean beren bezeroak artatzen dituzten langileak prestatzeko plan bat izatea, zeinaren taxuketa eta garapen Osasun

Publikoak gainbegiratuko baitu. Programa horretan jaso beharko dira:

- Joko seguruari eta arriskuzko portaerei buruzko informazioa eta laguntza.

- Erabiltzaileen arriskuzko portaeren detekzioa.

3. Enpresentzat aginduzkotzat ezartzea jokorako erabilitako materialetan mezuak jar daitezela, jokoan aritzearen arriskuez ohartarazten dutenak.

4. Online jokorako konexiorik gabeko guneak ezartzea.

5. Berriazko funts bat ezartzea, legean jasotako establezimendu guztientzat, jokoaren ondorio patologikoez ohartaraztekoa.

6. Errealitate Sozialaren Behatokiak urteroko azterlan bat egitea, Nafarroako ludopatia-egoerari buruz, Nafarroako Estatistika Institutuaren lankidetzarekin.

7. Nafarroako Joko Kontseiluaren jarduna indartzea.

### B.3 Publizitatea.

1. Joko- eta apustu-jardueren publizitatea, babesletza eta sustapena aurretiazko administrazio baimenari baldintzatuta egon behar da. Baimen horretarako, egiaztatuko da ezen legez ezarritako printzipio, betebeharrak eta debekuak betetzen direla, joko neurritsu, ez-konpultsibo eta arduratsuko jarreraren sustapena esplizitatu behar da, eta, betiere, joko adingabeei debekatuta egoteari buruzko mezuak jaso beharko ditu.

Aintzat hartu beharreko alderdi batzuk izanen dira publizitate-emanaldien ordutegiak edo haien bitartekoak, entzute publikoko pertsona edo pertsonaien agerpenaren debekua edo mugapena, babesletza- eta sustapen-jardueren arauketa, gogoan izanik joko neurritsu eta ez-konpultsiboko jarrerak sustatu beharra.

2. Ez dira baimenduko honako ezaugarriak betetzen dituzten komunikazio komertzialak:

- Joko-jardun burugabe, konpultsibo, itxuragabe, neurrigabe, adikziozko edo patologikoan aritzeko pizgarri direnak.

- Jokatzeko ez duten pertsonak gutxietsi eta jokatzeko dutenak itzal sozialduntzat aurkezten dituztenak.

- Joko-jarduerak arrakasta pertsonala, familia-koa, gizartekoa edo lanbidekoa islatzen duten ideia edo portaerekin elkartzeko, lotzeko edo zerikusiduntzat azaltzen dituztenak.

- Joko bateko parte-hartzaileentzako maileguen edo beste edonolako kreditu-modalitatearen eskaintzak egiten dituztenak.

- Jokoa alternatibatzat iradokitzen dutenak problema pertsonal, profesional, finantzario edo hezkuntzako, bakardadearen edo depresioaren aldean.

- Saridun izateko aukerari buruz tronparazten dutenak edo apustu-errepikapena iradokitzen dutenak.

3. Kirol-klubetan apustu-enpresen babesletza egiteko debekua; bereziki, haien publizitatea debekatzea elastikoetan eta kirol-janzkietan edo kirol-instalazio eta estadioetan.

4. Guztiz edo partzialki dirulaguntza publikoen bitartez finantzatu izanik Nafarroan egiten den edozein kirol-jardueratan apustuen publizitatea egiteko debekua.

5. Publizitate-debekua, publizitate horren euskarria 300 metro baino gutxiagoko distantzian badago ikastetxeetatik, kirol-, kultur-, josteta- edo osasungintza-zentroetatik edo joko-adikzioa, osasun mentaleko problema larriak edo desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako errehabilitazio-lokaletatik.

6. Kirol-apustuen publizitatea honako toki hauetan egiteko debekuak:

- Administrazio publikoen aretoetan.

- 18 urte baino gutxiagokoentzako gune publikoetan.

- Osasun-etxeetan, zentro sozial edo sozio-sanitarioetan eta ikastetxeetan.

- Zinema-aretoetan eta kirol-ekitaldiak egiten diren lokal nahiz instalazioetan.

7. Postaz, telefonoz edo baliabide telematikoen bitartezko publizitatearen eta, oro har, etxera bidalitako edozein publizitatearen debekua.

8. Nafarroako egunkari, aldizkari edo edozein informazio-bidetan publizitatea egiteko debekua, bai eta Nafarroan kokaturiko irrati- eta telebista-guneetan ere, 05:00etatik biharamuneko 01:00era arte.

### B.4 Dirulaguntza publikoak

Dena delako joko-modalitatean jarduten duten enpresek osoki nahiz partzialki babesturiko edo haien publizitatea daukaten kirol-jarduerak ez dira dirulaguntza publikoak eskatzeko moduan egon, eta halaber ezin izanen dute halako dirulaguntzarik lortu.



### B.5 Debekudunen erregistroak

Joko- eta apustu-jardunerako sarbidearen eta debekuaren mugapena. Nafarroako debekudun-zerrendaren interkonezioa.

1. Erregistro autonomikoaren inskripzio-baldintzak homogeneizatzea, haren oinarritzko parametroak Jokoratze Debekuen Erregistro Orokor nazionalakoekin berdinduz.

2. Jokoratzetik bazterturiko pertsonen erregistro autonomikoa automatikoki interkonektatu erregistro nazionalarekin, halako moduz non erraztu egingen baita erregistro autonomikoen eta Estatu-koaren arteko informazio-trukearen automatizazioa.

### B.6 Fiskalitatea

Nafarroako Gobernuaren premiatzea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bitartez, jokoaren fiskalitateari buruzko azterlan bat egin dezan, Nafarroako Foru Komunitatearen esparrukoa.

### **BOTO PARTIKULARRA,**

Apustu-etxeen Nafar Araubidea prestatzeko Ponentziaren txosteneko IV.B atalari EH-Bildu eta Izquierda-Ezkerra-mistoa talde parlamentarioek eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteak aurkeztua.

### B. Arauketa.

EH Bildu eta Izquierda-Ezkerra-mistoa talde parlamentarioek eta Podemos-Ahal dugu foru parlamentariaren elkarteak proposatzen dugu kirol-apustu-erakundearen establezimendu berrien irekitze eta instalazioari mugapenak ezartzea, eta jada badaudenak arautzea, neurriak ezarriz kontsumitzaileen defentsa, gizatalde zaurgarrien babesa eta, batez ere, adingabeena bermatuko dituztenak.

2019ko urriaren 30ean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Foru Komunitatean apustu-establezimendu, joko-areto eta bingo berriak irekitzeko baimen-ematea etenda uztea, sektorearen hazkundera ikusirik. Azken urteotan nabarmen gehitu dira joko-sektoreko lokalak, gehienbat apustu-makinekikoak. Horrek aztoramendu soziala eragin du, eta behartzen du horrelako establezimenduen proliferazioa mugatzeko eta jada badaudenak eraentzeko araubide bat taxutzerara.

Helburu horiei heltzeko, neurri-sorta bat proposatzen dugu, apustu-erakundearen eta apustu-makinekiko establezimenduen kopurua, haien kokalekua, haien bete beharreko baldintzak eta haien publikitatea, dirulaguntza publikoak, prebentzioa, debekudunen erregistroa eta fidantzak arautzekoak.

### ESTABLEZIMENDU KOPURUA

Foru Komunitatearen lurralde osoan mugapenak ezartzea apustu-denda, joko-areto eta bingo-erakundearen establezimendu berriak irekitzeko.

### ESTABLEZIMENDUEN KOKALEKUA

1. Gutxienez ere 600 metroko distantzia ezartzea apustu-denda edo joko-lokalen eta zona zaurgarrien artean, hala nola ikastetxeak, unibertsitateak, gazte-zentroak, haur-parkeak eta tratamendu- nahiz errehabilitazio-zentroak. 600 metroko gutxienezko distantzia hori neurtuko da bide publikotik dagoen oinezkoentzako ibilbide motenetik.

2. Joko-sektoreko establezimenduen artean 600 metroko gutxienezko distantzia ezartzea.

3. Ostalaritza-establezimenduetan kirol-apustu-gailuak paratzeko debekua. Horretarako, ostalaritza-lokaletan apustu-makina berriak paratzea debekatzen da, eta epe bat ezartzen, jada paratuta dauden makinak erretiratzeko.

Ponentzian egiaztatuta geratu da ezen ostalaritza-lokaletan makinak paratzeak jokoratzea eta joko-eskuragarritasuna erraztu dizkiela gazteeneri. Jokoa, gehienbat apustugailuen bitartezkoa, gazteen direnentzako sozializazio- eta aisialdi-elementu bilakatu da. Horregatik proposatzen dugu jokoa jardun horretarako behar bezala baimenduriko lokaletara mugatzea. Ostalaritza-establezimenduetatik kentzen diren apustugailuak bingoetan, joko-aretoetan edo apustu-dendetan birkokatu ahalko dira.

### ESTABLEZIMENDUEN BALDINTZAK

1. Adingabeei eta autodebekudunen erregistroan inskribaturiko pertsoneri sarrera debekatzea. Neurri hori betetzea bermatzeko, honakoa proposatzen dugu:

- Sarrerako identifikazio- eta kontrol-prozesuak indartzea, bermatze aldera adingabeek modurik ez izatea lokalen barrenera sartzeko. Zilegi izanen da horretarako tornokak paratzea.

- Onarpen-kontrol bat ezar dadila, bisitari bakoitzeko fitxa pertsonala irekiz eta datu-babesari buruzko legediaren bermea duten eskubideak babestuz.

- Ikusteko moduko toki batean afixa bat jarritzea, adierazten duena adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribatuta dauden pertsonen debeku dutela apustu-erakundearen parte hartzea.

2. • Aginduzkoa izatea errotulu edo idazkun bat ipinita izan dezaten, apustu-lokal edo apustu-eremu direla jakinarazten duena.

3. Bai lokalen sarrera-aldean bai barnealdean informazioa paratzea, ikusteko moduko tokietan, jokoak dakartzan arriskuei eta apustu-jokoetan gehiegikeriaz jarduteak sor dezakeen adikzioari buruzkoa, bai eta adikzio-kasuetan zer tokitara jo daitekeen jakinarazten duena ere.

4. Enpresentzat aginduzkotzat ezartzea jokarako erabilitako materialetan mezuak jartzea, jokoan aritzearen arriskuez ohartarazten dutenak.

5. Joko etikoa bermatzeko neurriak ezartzea: galerak mugatzea, apustu-abiadura geldotzea, sari-ematea mugatzea, "berotan" eginiko apustuak debekatzea.

6. Apustu enpresa eta establezimenduentzat aginduzkotzat ezartzea beren langileentzako prestakuntza-plan bat izan dezaten, osasun-sistema publikoak haren taxuketan eta garapenean ikuskatze-eginkizuna izanik. Plan horren gutxieneko edukia honakoa izanen da:

- Joko seguruari eta arriskuzko portaerei buruzko informazioa eta laguntza.
- Erabiltzaileen arriskuzko portaeren detekzioa.
- Prestakuntza, sektoreko droga-mendekotasunen prebentziorako programa nazionalaren ildoakoa.

#### DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK

Ezin izanen zaie dirulaguntza publikorik eman babesle gisa osoki nahiz partzialki joko-enpresak dauzkaten ekitaldiei.

#### Publizitatea.

1. Joko-eta apustu-jardueren publizitatea, babesletza eta sustapena aurretiazko administrazio-baimena jasotzera aurkeztu beharko dira. Baimen-emate horretan egiaztatu beharko da joko arduratsuko printzipioak betetzen direla. Publizitate guztian esanbidez egin beharko da joko neurritsu, ez-konpultsibo eta arduratsuko jarreraren sustapena. Betiere txertatu beharko dira adingabeei jokia debekatuta egoteari buruzko mezuak.

2. Jokoaren publizitatea, babesletza eta sustapena baimentzeko aintzat hartu beharreko alderdi batzuk izanen dira publizitate-emanaldien ordutegiak edo haien emisio-bitartekoak, bereziki gazteen artean entzute publikokoak diren pertsona edo pertsonaien agerpenaren debekua edo mugapena, joko neurritsu eta ez-konpultsiboko jarreraren sustapena.

3. Ezaugarri hauek dituzten publizitatea eta komunikazio komertzialak ez dira baimenduko:

- Joko-jardun burugabe, konpultsibo, itxuragabe, neurrigabe, adikziozko edo patologikoan aritzeko pizgarri direnak.

- Jokatzan ez duten pertsonak gutxietsi eta jokatzan dutenak itzal sozialduntzat aurkezten dituztenak.

- Joko-jarduerak arrakasta pertsonala, familiakoa, gizartekoa edo lanbidekoa islatzen duten ideia edo portaerekin elkartzen, lotzen edo zerikusiduntzat azaltzen dituztenak.

- Joko bateko parte-hartzaileentzako maileguen edo beste edonolako kreditu-modalitatearen eskaintzak egiten dituztenak.

- Jokoa alternatibatzat iradokitzen dutenak problema pertsonal, profesional, finantzario edo hezkuntzako, bakardadearen edo depresioaren aldean.

- Saridun suertatzeko aukerari buruz tronparazten dutenak.

4. Apustu-enpresek kirol-klubei babesletza ematearen debekua, haien publizitatea elastikoe-tan, janzkietan edo kirol-ekipamenduko edozein elementutan egitearen debekua, bai eta kirol-estadio eta -instalazioetan egitearena ere.

5. Publizitate-debekua, publizitate horren euskarria 600 metro baino gutxiagoko distantzian badago ikastetxeetatik, kirol-, kultur-, josteta- edo osasungintza-zentroetatik edo joko-adikzioa, osasun mentaleko problema larriak edo desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako errehabilitazio-lokaletatik.

6. Kirol-apustuen publizitatea honako toki hauetan egiteko debekua:

- Administrazio publikoen aretoetan.
- 18 urte baino gutxiagokoentzako guneko publikoetan.
- Osasun-etxeetan, zentro soziosanitarioetan eta ikastetxeetan.
- Zinema-aretoetan eta kirol-ekitaldiak egiten diren lokal nahiz instalazioetan.

7. Postaz, telefonoz edo baliabide telematikoko bitarteko publizitatearen eta, oro har, etxera bidalitako edozein publizitatearen debekua.

8. Publizitate-debekua, egunkari, aldizkari edo edozein hedabidetan, eta bereziki

- 18 urtetik beherakoei zuzenduriko hedabideetan
- Lehenengo orrialdean, kirol-orrialdeetan eta denbora-pasako orrialdeetan.

• Nafarroan kokaturiko irrati eta telebistetan, goizeko 05:00etatik biharamuneko eguerdiko 01:00era bitarteko tartean.

9. Online jokorako konexiorik gabeko guneak ezartzea.

#### DEBEKUDUNEN ERREGISTROA

1. Autodebekudunen erregistroetan inskribaturiko pertsonen joko- eta apustu-lokaletan sartzeko debekua ezartzeari dagokiona arautzea.

2. Erregistro autonomikoaren inskripzio-baldintzak homogeneizatzea, haren oinarritzko parametroak Jokoratze Debekuen Erregistro Orokor nazionalarekin berdinduz.

3. Debekudunen erregistro autonomikoa automatikoki interkonektatu erregistro nazionalarekin, halako moduz non erraztu egingen baita erregistro autonomikoen eta Estatukoaren arteko informazio-trukearen automatizazioa.

#### PREBENTZIOA ETA TRATAMENDUA

1. Berariazko funts bat sortzea, kirol-apustuekin zerikusia duen jokoaren patologiak prebenitu

eta tratatzekoa. Horren zuzkidura etorriko da enpresa horien onuren % 2ko ekarpena egitetik.

2. Ludopatien tratamendurako behar bestekoak diren giza eta gauza baliabide publikoak bideratzea.

3. Errealitate Sozialaren Behatokiak urteroko azterlan bat egitea, Nafarroako ludopatia-egoerari buruz, Nafarroako Estatistika Institutuaren lankidetzarekin.

4. Nafarroako Joko Kontseiluaren jarduna indartzea.

#### FINANTZAK

Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 15. artikuluan jasotako zenbatekoak eguneratzea, zeinak zehaztuta baitaude Nafarroako Jokoen eta Apustuen Erregistroa sortu eta haren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen urtarrilaren 24ko 4/2011 Foru Dekretuaren 3. xedapen iragankorrean.

